



Azpeitiko Udala

LOIOLA AUZOKO "TURBINA" ETXEAREN INGURUETAN EUSTE-HORMA BAT EGITEKO LANETARAKO HITZARMENA

Azpeitia, 2015eko azaroaren 3a

ELKARTU DIRA

Alde batetik, Eneko Etxeberria Bereziartua, Azpeitiko Udalaren alkate-udalburua.

Eta bestetik,

Jose Luis Larrañaga Garmendia eta

Jose Manuel Odriozola Azpiazu.

Bi aldeek behar adinako gaitasun juridiko eta jardutekoa aitortzen diote elkarri, **HIRIGINTZA HITZARMEN** hau izenpetzeko, eta

ADIERAZI DUTE

AURRENA.- Jose Luis Larrañaga "Kiruri" 15. HEko hiri-lurraren mugaren ondoan kokatuta dauden bi partzelaren jabe dela. Partzela horiek katastroko 7. poligonoaren 310 eta 311 zenbakidunak dira (katastroko planoaren erantsita dator, I. eranskin moduan).

BIGARRENA.- Hiri-lurraren eta lur urbanizaezinaren arteko muga hobetu ahal izateko, euste-horma bat egin eta Jose Manuel Odriozola Azpiaturen jabetzako garai bateko "Renault" etxearen inguruetan aparkalekura bideratutako lurra handitu nahi dela (II. eranskin moduan erantsita dator hiri-lurrak gaur egun duen muga eta proposatzen dena).

HIRUGARRENA.- Euste-horma hori eraikitzen denean zona horren urbanizazioa eta orain dagoen espaloi publikoa handitzea planteatzen dela, horrela zona horren antolamendua hobetuz (III. eranskin moduan dator zona horren antolamendua jasotzen duen krokisa).

LAUGARRENA.- Azpeitiko Udala, printzipioz, proposatu den jardueraren aldeko agertzen dela, zona horren antolamendua hobetu egingo baitu, dauden aprobetxamenduak handitu gabe.

Azaldutako guztia kontuan izanik, bi aldeek **HIRIGINTZA-HITZARMEN** hau sinatu dute, ondoren zehaztuak datozen Estipulazioen arabera:

ESTIPULAZIOAK

AURRENA.- Gaur eguneko hiri-lurraren mugaren eta euste-horma berriaren artean dagoen lurra hiri-lur moduan sartuko da "Kiruri" 15. HEn, lurzoru pribatu eraikiezinaren izaerarekin, errepidearen ondoan egin behar den espaloi publikoa izan ezik (II. eranskina).

BIGARRENA.- Udalak bere gain hartzen du hitzarmen honen ondorioz sortuko den hiri-lur berriaren mugaren zuzenketa tramitatzeke zeregina.

HIRUGARRENA.- Egin beharreko urbanizazioa jabe partikularren kontura izango da. Egin beharreko urbanizazio horretan sartua dago Udal honi eman beharko zaion espaloi publikoa. Urbanizazio-lanak Udalaren Zerbitzu Teknikoen jarraibideak betez egin beharko dira eta berdeguneak jarriko dira hormaren aurrean (III. eranskina).

LAUGARRENA.- Lurzoru berriek ez dute hirigintza-aprobetxamendurik izango, aprobetxamendu hori "Renault" eraikinaren partzelan patrimonializatuta dagoela irizten delako.

Eta ados daudenaren seinale, hitzarmen hau sinatu dute goian adierazitako lekuan eta egunean.

AZPEITIKO ALKATEAK,
Eneko Etxeberria Bereziartua



JABEEK,
José Luis Larrañaga Garmendia

José Manuel Odriozola Azpiazu